



VITORIA-GASTEIZKO ARTE ETA LANBIDE ESKOLAREN LIBURUTEGIKO FUNTSAK ERABILTZEKO, KONTSERBATZEKO ETA KONTSULTATZEKO ARAUDIA

Araudi honek helburutzat dauka Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolaren liburutegi-zerbitzua arautzea.

Arte eta Lanbide Eskolako liburutegia espezializatua da, eta ikerketara dago bideratua.

Liburutegiko funts espezializatuak balio historiko handia du; horrenbestez, liburutegiak helburu nagusizat dauka bertako edukiak ikerketa-komunitate osoaren esku jartzea.

Hauek dira Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolaren funts bereziak:

- Aldizkako argitalpen historikoak
- Tauromakia-arloko funtsa
- Ale hondatuak dituzten bibliografia-funtsak
- Funts zaharra (XVIII. mendekoa eta batez ere XIX. mendekoa)
- 1958 aurreko aleak
- Ezaugarri bereziak (adibidez, egileen sinadurak edo oharrak, azal berezia, etab.) dituzten aleak
- Kontserbaziorako babes berezia behar duten dokumentuak
- Kartografia-materiala

1. Ezin dira liburutegiko funtsak maileguan hartu, eta araudi honetan jasotzen diren baldintzen arabera kontsultatu behar dira.
2. Materialen kontsulta dagokion liburuzainak baimendu behar du.
3. Erabiltzaileak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko (EIPS) txartela eduki behar du.
4. Hamalau urtetik gorako pertsonak soilik sar daitezke liburutegian.

5. Kasu hauetan, jatorrizko dokumentuen kontsulta uka daiteke: egoera okerrean daudenean, kontserbazio-arazoak dituztenean, dokumentuen osotasuna arriskuan dagoenean edo edizio faksimilea, mikrofilma edo euskarri digitala eskuragarri daudenean. Azken kasu horretan, dokumentuaren edizio faksimilea edo digitala kontsultatuko da beti. Jatorrizko dokumentuak salbuespenezko kasuetan baino ez dira kontsultatuko; horretarako, behar bezala argudiatutako ikerketa-arrazoiak eta baimen berezia beharko dira.
6. Gehienez ere hiru liburuki kontsultatu daitezke aldi berean. Inprimaki baten bidez egin behar da eskaera; erabiltzailearen datuak jasoko dira bertan, baita ikerketaren xedea eta gaia ere. Eskaerari 24 orduko epean erantzungo zaio. Lanak kontsultatzeko, horretarako propio jarri diren mahaiak erabiliko dira.
7. Kontsulta egin bitartean, dokumentuek ikusgarri egon behar dute une oro liburutegiko langileentzat. Erabiltzaileak dira esku artean duten materialaren arduradunak, materiala liburutegiko langileei itzultzen dioten unera arte.
8. Funtsak nola kontsultatu:
 - a. Ezin dira funtsak bata bestearen gainean metatu, ezta zoruan utzi ere.
 - b. Debehatuta dago gorputza aleetarantz makurtzea edo aleen gainean jartzea.
 - c. Kotoizko edo latexko eskularruak erabili behar dira dokumentu jakinak kontsultatzeko. Liburutegiko langileek emango dizkiote eskularruok erabiltzaileari.
 - d. Ezin da ez tintarik ez bolalumarik erabili, lana zikindu dezakete-eta. Arkatza soilik erabil dezake erabiltzaileak.
 - e. Debehatuta dago liburuen orrialdeetan idaztea, azpimarratzea edo edozein zeinu nahiz marka egitea.
 - f. Era berean, ezin da inolako libururik edo paperik jarri liburu irekiaren gainean, ezta idatzi ere.
 - g. Edozein dokumentu ukitu aurretik, eskuak garbi eta lehor eduki behar dira.
 - h. Hatz lehorrekin pasatuko dira orriak, kontu handiz eta emeki.
 - i. Orrien izkinak ezin dira tolestu, eta ahalik eta gutxien ukitu behar da dokumentua. Beharrezkoa bada, aretoko langileek paper neutrozko zerrendak emango dizkiote erabiltzaileari.
 - j. Dokumentuak kontuz eta emeki ireki behar dira. Liburutegiko langileek euskarri egokia emango diote erabiltzaileari material jakinak kontsultatzeko.

- k. Ireki gabeko orrialdeak dituen libururik aurkituz gero, aretoko langileei jakinarazi behar zaie.
 - l. Debekatuta dago tresna edo objektu zorrotzak erabiltzea; adibidez, guraizeak, grapagailuak, kuterrak edo zorrozkaileak.
 - m. Guztiz debekatuta dago fotokopiak egitea.
9. Debekatuta dago irakurketa-gelan jatea, erretzea edo gelaren xedea galaraziko duten bestelako jokabiderik izatea.
10. Instalazioak nola erabili:
- a. Zerbitzuaren erabiltzaile orok konpromisoa hartzen du liburutegiko dokumentuak, instalazioak eta gainerako tresnak modu egokian erabiltzeko. Beraz, horiek gaizki erabiltzearen ondorioz kalterik eragiten badie, erabiltzailea izango da kalteen arduraduna. Kasu horretan, galdutako nahiz kaltetutako materiala ordezkatu beharko du erabiltzaileak.
 - b. Gainerako pertsonak errespetatu behar dira, eta isilean egon behar da. Sakelako telefonoaren, ordenagailu eramangarriaren edo bestelako gailu elektronikoen soinua isilarazi behar dira.
 - c. Arduradun baten zaintzapean eta irekiera-ordutegiaren barruan baino ezin dira erabili instalazioak.